



## 5 UDAKO TXOKOAK

### Bihar irekiko da Udako Txokoetan izena emateko epea

Udako oporraldian hamaika jolas, abentura eta irteeraz gozatu ahalko dute herriko gaztetxoek, aurten ere Udako Txokoak prestatu baititu Ttakun KEko Aisia sailak. Bihar goizeko bederatzietan irekiko da izena emateko epea; interesa dutenek Ttakunek Geltoki kalean daukan bulegora joan beharko dute. Begirale gisa aritu nahi dutenek ere bihartik aurrera eman dezakete izena.

## 8 ELKARRIZKETA

### Aitor Zarzuelo zine zuzendari gaztearekin hizketan

Lekeitioko Zine Bileran 'Gazte 22' saria irabazi zuen Aitor Zarzuelo lasarteoriatarren "Maitaleak" lanak. Maitasun bikote harreman ez konbentzionalen izaera aztertzen du film laburrak. Azaldu duenez, ohikoak ez diren gaiak jorratzea du gustuko. Musika bideo-gintzan dihardu gehienbat orain, eta Meltdown taldearekin egindako bideo klip berria estreinatu berri du. Orain arte egindako lanari buruz aritu gara berbetan harekin.



Ekimenaren antolatzaileak Apalategi kafetegian egindako aurkezpenean, sagardo eta pintxoekin batera.

# 'Sagardopotea' tabernetan zehar

Sagardoa eta pintxoak dastatzeko aukera egongo da ostiralean, musikak lagunduta

Herriko 11 tabernekin bat egin dute Aterpeak antolatutako 'Sagardopotea' egitasmoarekin. Ostiral honetan, hilaren zortzian, arratsaldeko zazprietatik bederatzietara ostalduen kanpoaldean karpak jarriko dituzte. Euro eta erdian sagardo basoa edan ahal ahalko dute bertaratuko diren herritarrek, pintxo batekin lagunduta.

Lasarte-Oriaren izaera gastronomikoa aldarrikatu nahi du 'Lasarte-Oria Herri Gastronomikoa' ekimenak. Haren baitan antolatzen azaroan hirugarren aldiz Pintxo Ibilbidea. Ostiralean, berriz, 'Sagardopotearekin' gozatzeko aukera egongo da herriko zenbait ostalduetan.

19:00etan hasiko da eta afal ordura arte luzatuko da ekintza, 21:00ak arte hain zuzen. Tabernen kanpoaldean karpak jarriko ditu Udalak eta euro eta erdian sagardo baso

eta pintxo bana dastatu ahal izango dira. Ttiriki-Ttarraka musika eskolako kideek musikaz lagunduko dute ibilbidea.

### Ostalaritza suspertu

Alkate Jesus Maria Zaballosek Aterpea eta Lasarte-Oriako tabernak zoriondu ditu halako ekimenak antolatzeagatik. Atsotakar auzoko Apalategi kafetegian egin dute aurkezpena, parte hartuko duen ostaldu batean alegia.

Azaldu duenez "herriko ostalaritza eta merkataritza

suspertu" ahal izateko beharrezkoak dira halakoak. Kasu honetan, karpak jarriaz lagunduko dute, eta jakinarazi duenez "ahal denean" lagunduko dituzte antzeko helburua duten ekintzak.

### Hamaika taberna

Aterpeko kide Ramon Ormazabalak jakinarazi duenez, Lasarte-Oriako hamaika ostaldu hartuko dute parte 'Sagardopotean'.

Viña del Mar eta Arkupe tabernekin Berezia sagardoa eskainiko diete bertaratutakoiei. Santxok, berriz, Urdaira; Buenetxeak Alorrenea; Avenidak eta Trumoiak Illaramendi; Yolanda Ixasburu; Izurdek Saizar; Lasartek Mina; Apalategi Petritegi eta Zubietako Araeta sagardotegiak etxekoa bertakoa.

Azken honek berrikuntza eskainiko du: udarearekin egindako sagardoa. Araetako Ignacio Oñatek azpimarratu duenez "tradizioa eta berrikuntza uztartu" nahi izan dituzte. Izan ere, garai batean sagardotegietan egiten zuten udare-ardoa sagarrak gabe geratzen zirenean.

### Pintxo ikastaroa

III. Pintxo Ibilbidean parte hartu zuten tabernetako sukaldariak Martin Berasategi jatetxean izango dira pintxoak egiteko aholkuak jasotzen.

Apirilaren 15ean egingo du lehenengo saioa leihaketan garaile ateratako Santxo tabernak.

Beste ostalduetako ere Martin Berasategiren aholkuak jasoko dituzte 2016an zehar.



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

## Probatu

nola ikusiko duzun  
lenteak izan aurretik

Nautilus, lenteak probatzeko errealitate birtualeko lehen aparailua Multiópticasen

[www.multiópticasgipuzkoa.com](http://www.multiópticasgipuzkoa.com)

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE

MULTIÓPTICAS  
lehen zerbitzu optikoetan

## ASTE SANTUA



Ostiral goizean hainbat herritarrek irudikatu zuten Jesusen gurutze bidea. San Pedro elizatik Sausta pareko aldarera joan ziren.



Herritar ugari bertaratu ziren Arantzazuko Ama parrokiara Ostegun Santuan.

## Ospakizun jendetsuak

### Herritar ugari hartu dute parte Aste Santuko ospakizun ekitaldietan

Martxoaren 24tik 27ra bitarte Jesusen azken egunak ekarri zituzten gogora herriko elizbarrutiek, hainbat ekitaldi antolatuta. Aste Santuko oporrak kanpora joateko baliatzen dituzte askok; jendetsuak izan ziren ospakizunak, hala ere.

Lasarteoriatar fededunek urteroko ospakizun ekitaldiak burutu dituzte Aste Santuan zehar, herriko elizbarrutiek –San Pedro eta Arantzazuko Ama elizak eta Brigitarren komentuak– antolatuta. Martxoaren 24tik 27ra bitarte Jesusen azken egu-

nak ekarri zituzten gogora. Egun horietan herritar asko oporretara kanpora joan baziren ere, jendetsuak izan ziren ospakizunak.

Ostegun Santu arratsaldeko Meza Nagusiekin Jesusen apostuluarekin batera egindako azken afaria oroitu zuten herritarrek.

Ostiral goizean, Sausta base-rikko aldre parera joan ziren hainbat herritar, gurutze bidea eginez. Arantzazuko Ama parrokiakoak Azkorterera joatekoak ziren, baina elizan bertan burutu zuten ekitaldia, eguraldi kaskarra tarteko.

Larunbatean Pazko Bijiliak egin zituzten herritarrek. Igan-dean amaitu zituzten ospakizunak elizbarrutiek: mezak egin zituzten hiruetan, goiz eta eguerdian zehar.



Pazko Igan-dean Jesusen berpizkundea gogoratu zuten Brigitarren komentuan.

## Egurra eta olio margoa uztartuz



Egur zati margotuekin bolumenak eta perspektiba jokoak ikusi daitezke hainbat lanetan.

Loreto Otaegiren lanak Legongo dira ikusgai apirilean zehar Jalgi Kafe Antzokian.

Otaegiren lanen artean Euskal Herriko txokotako irudiak dira nagusi; hala nola, Orbaizeta, Izaba, Otsagabi edo Donostiako ikuspegiak ezagutu daitezke.

Mihise eta egurraren gainean margotutako koadroak edo egurrezko pieza margotuekin konposatutakoak dira. Bolumena eta bistarekin jokatzen du hainbatetan.

Familiako kideek azpimarratu dutenez, argazkiak eredu hartuta margotzen edo lantzen zuten egurra Loreto.


#### Omenaldia

Loreto Otaegik marrazkirako zaletasuna zuen eta bere lanak familia giroan erakusten zituen.

Baina, familiako kideek azaltzen dutenez, bere ilusioetako bat lanekin erakusketa bat egitea zen. Ezin izan zuen bere asmoa bete eta familiak omenaldi gisa gauzatu du amets hori Jalgin bere lanak erakutsiz.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,  
Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Segurola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDALBATZARRA



EAJko Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki Lasarte-Oriako jolas parke batean.

## Jolastokiak ezinduentzako egokitzearen aldeko mozioa

EAJk proposamena aurkeztuko du datorren asteko Udalbatzarrean

**Egun Lasarte-Oriako jolaslekuak ez daude ume ezinduentzako egokituak. Hala uste dute behintzat EAJko ordezkariak. Horregatik, apirilaren 12ko ohiko Udalbatzarrean mozioa aurkeztuko dute, jolas parkeak eraikitzean, kolektibo hauek kontuan hartuko dituen araudia egin ahal izateko.**

## TXINTXARRI

Haur guztiek jolaserako guneak behar dituztela azpimarratu dute EAJko Estitxu Alkorta eta Jon Antxordokik. Horretarako, ezberdintasunak ez lukete "oztopo" izan behar.

## EAJren proposamena

Gaur egun Lasarte-Orian ditugun jolasguneak ez dituzte betetzen haur ezinduek segurtasunez jolas dezaten beharrezkoak diren segurtasun neurriak.

Halaber, EAJko ordezkarien

ustez, ez dago ez araurik ez irizpiderik gune hauen irisgarritasuna bermatuko dituenik.

Hori dela eta, hiru puntu nagusi aurkeztuko dituzte apirilaren 12an egingo duten ohiko Udalbatzarrean.

Lehenik herriko jolastokiak eraikitzean "irizpideak" adosteko eskatuko dute.

Egungo jolaslekuren bat edo gehiago egokitzeko aukera ere aztertuko dute.

Azkenik, 2016ko aurrekontuetan bi eskaera horiek kontuan hartzearen aldeko botoa emango du EAJk.

## Arrazoiak

Arlo honetan hobekuntzak ezartzea beharrezkoa ikusten dute. "Erakundeek eta gizarteak duten erronka" da ezinduentzako irisgarritasuna hobetzea.

"Ume guztiek elkarrekin jolastuko duten espazio inklusiboak sortzeko" helburua dutela azpimarratu du Alkortak.

Gainera, aldarrikapen honekin, "kontzientziazioa" bultzatu nahi dute EAJko kideek. Izan ere, neurriak hartzeko orduan gizatalde hauen iritzia kontuan hartzea garrantzitsua dela nabarmendu dute.

Besteak beste, haur hauen gurasoekin hitz egin beharko litzatekeela uste du Alkortak, "haiek ezagutzen baitituzte seme-alaben beharrak".

## Oria ibaiaren saneamenduak segida behar du, Eguzkiren ustez

Eguzki talde ekologistak adierazi du Lasarte-Oriako eta Usurbilgo hodi biltzaile berria martxan jarri izana albiste ona dela. Hala ere, aurretik egiteko asko dagoela ohartarazi dute.

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur zikinak Loiolako araztegiara eramango dituen hodi biltzailea martxan da dagoeneko. Talde ekologistak azaldu duenez, egin beharreko inbertsioa zen. Izan ere, gogoratu dute orain arte bi herrietako urak zuzenean Oria ibaian isurtzen zirela.

## Lanean jarraitu beharra

Intertzeptorea lanean egotea

garrantzitsua izan arren, "zuzenean inolako tratamendurik gabeko ur beltzak" ibaian isurtzen jarraituko dituztela ohartarazi dute. Urtarrilean onartutako plan hidrológicoak egiteko dauden hamaika proiektu zerrendatu zituen. Esate baterako, Ziako eta Anoetako errekek, Altzaga eta Arama, Altzo Muño, Hernialde, Orendain, Baliarrain, Gabiria eta Mutiloa.

Andoaingo Ziako erreka-aren kasua aipatu dute adibide gisa. Industrialdetako ur zikinak biltzen ditu oraindik ere, eta erakundeek 5 milioiko aurrekontua onartu dute isuriaren saneamendurako. Lehenengo milioia 2016 eta

2021 urteen bitartean inbertituko dute, eta dagoeneko 2027a iritsi aurretik. Beraz, Eguzkik nabarmendu duenez, "beste hamarkada batez behintzat jarraituko dute ur zikinak Orian isurtzen".

## Atzerapena

Atzerapen handia egon dela azpimarratu du talde ekologistak. Diotenez, "Europako Saneamendu Zuzentarauaren arabera, 2000. urterako Orian ur zikinak botatzeari utzi" behar zioten inguruko etxebizitzek. Lanak 2009ko azaroan hasi ziren, eta sei urte baino gehiago behar izan dituzte sistema berria martxan jarri ahal izateko.

## UDALA

### Udaberriko ikastaro-sorta zabala

Lasarte-Oriako Udalak Gaztelekuko eta Manuel Lekuona kultur etxeko Udaberriko ikastaroen eskaintza aurkeztu du. Izena ematea ostegunera arte egin ahal da.

Gaztelekuan 12 eta 30 urte bitarteko herritarrentzat 6 ikastaro eskainiko dira: Gitarra, Break Dance, Dance Hall, Sushi Prestaketa, Pintxo Prestaketa eta Arteterapia. Udalak jakitera eman duenez, ikastaroak institutuetan egindako inkesta batzuetatik atera emaitzen arabera aukeratu dira.

Bestalde, Manuel Lekuona kultur etxeak ere helduei zuzendutako sei ikastaro aurkeztu ditu: Meditazioa, Bizkarreko Mantenimendua, Coaching Familiarra, Olio eta Pintura, Pintxo Prestaketa eta Latin Jazz Dantza. Informazio gehiago jasotzeko edo inskripzioa egiteko, 12 eta 30 urte bitarteko gazteek Gaztelekura joan behar dute eta helduek, berriz, Manuel Lekuona Kultur etxera.



## ELKARRETARATZEA

### Brusela gogoan

Martxoaren 23an, asteazkenean, bost minutuz, herritarrak, alderdi ezberdinetako kideak eta udal ordezkariak isiltasunean udal zaharreko arkupeetan bildu ziren.

Lasarte-Oriako Udalak eta herritarrek martxoaren 22an Bruselan jazo ziren atentatuak gaitzetsi eta biktimei eta haien familiei elkartasuna erakutsi nahi izan zieten, baita horrelako ekintzek sortzen duten samina ere. Kontzentrazioa amaitzean txaloak izan ziren.

## GURE ESKU DAGO

### Gure Esku Dagok onartutako adierazpen aurkezpenerako deialdia

Herritar talde batek idatzitako adierazpena aurkeztuko du Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok. Loidibarren frontoian izango da ekitaldia ostiralean arratsaldeko 19:00tan.

Bi puntu nabarmendu ditu adierazpenak. Lehenik "Euskal Herria bere etorkizuna erabakitze eskubidea duen herria dela", eta bestetik, "euskal herritarrogi dagokigula erabakia hartzea". 2017an erabakitze eskubidearen aldeko herri kontsulta egiteko asmoa dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte Loidibarrenen egingo duten talde argazkira.



Oria ibai ondoko ponpaketa estazioa; saneamendu lanetako pieza garrantzitsua.

### Proiektu txikiagoen garrantzia

Lasarte-Oriako hodi biltzailearen edota Aramako araztegiaren lanak "ezinbestekoak" diren arren, saneamendu proiektu xumeagoek duten garrantzia azpimarratu dute.

Eguzkiren ustez, martxan dauden azpiegitura batzuk berritu beharko dira etorkizun hurbilean.

Loiolako araztegi jarri

dute adibide, hasieratik "makal" dabilela baitiote.

"Aurrekontuek ahalbidetzen duten ahala" saneamendurekin jarraituko dutela azaldu dute, erakundeentzat ez baitira proiektu "estrategikoak".

Eguzkik aldarrikatu du ibaien garbiketarekin zerikusia duten lanak "ezinbestekoak" izan beharko liratekeela erakundeentzat ere.

# Apirila, kultur ekitaldiz gainezka

Ostegunean hasiko da IV. Musika Astea; lau emanaldi antolatu ditu Udalak, igandera arte

Denetarik osagaiak ditu apirileko kultur menuak: musika, dantza, zinema, antzerkia, argazki-erakusketa bat eta baita liburu baten aurkezpena ere. Herritarrek hainbat ekitaldi edukiko dituzte aukeran: besteak beste, ostegunean hasiko den IV. Musika Astea, Ludi Cuestaren 'Solo una voz' liburuaren aurkezpena hilaren 22an edota Dantza Topaketak 29an.

## TXINTXARRI

Aste Santuko oporraldia-  
ren ostean, emanaldi  
eta ekitaldiz lepo dator  
apirileko kultur agenda. Haur  
zein helduentzako filmek ireki  
dute egitaraua, pasa den aste-  
buruan. Ostiral gauean 'Carol'  
pelikulaz gozatu zuten herri-  
tarrek, kultur etxean; Okendo  
Zinema Taldeak antolatu zuen  
emanaldia. 'Robot' luzeme-  
traia ikusi zuten hainbat gaz-  
tetxok atzo arratsaldean, eta  
'Ave Cesar' helduek.

Asteon musika izango da  
protagonista nagusia. Ostegun  
honetan hasiko da IV. Musika  
Astea, 'Eunate XXI' emanal-  
diarekin. Donejakue bidean  
girotutako piezak interpretatu-  
ko dituzte Josetxo Goia Aribere  
eta Ana Belen Garciak, kultur  
etxe auditorioan. 20:00etan

hasiko da kontzertua; doakoa  
da sarrera. Ostiralean Serafin  
Zubiri artista nafarrak 'X una  
causa justa' lana oholztaratu-  
ko du, areto eta ordu berean.  
5,50 euro balio dute sarrerek.  
Larunbatean 'La Taberna del  
Puerto' zarzuela edukiko dute  
ikusgai lasarteoriarrek, 12  
euroren truke, kultur etxe auditorioan. 20:00etan hasiko  
da emanaldia. Azkenik, igan-  
dean, Amaren Alabak talde  
zuberoarra igoko da audito-  
rioko oholztara, 12:30ean.  
Doakoa izango da ikuskizuna.

### 'Solo una voz'

Horrela du izena Ludi Cuesta  
herritarrek idatzi duen poema-  
liburuak. Salamancakoa da  
jaiotzez, baina urte mordo  
daramatza Lasarte-Orian bizi-  
tzen. 'Lan eta lan' antzerki tal-  
deko kidea da, eta 'Makelu'



Xabier Goitia, Jesus Zaballos eta Maite Iglesias, apirileko kultur agenda aurkezteko egin zuten agerraldian, joan den asteazkenean.

interpretazio taldekoa ere bai.  
Hilaren 22an, ostiralez, aur-  
keztuko du 'Solo una voz',  
kultur etxe hitzaldi aretoan;  
19:30ean hasiko da ekitaldia.

### Dantza topaketak Okendon

Dantzaren nazioarteko eguna  
izango da hilaren 29a. Horren  
harira, topaketa batzuk ari da  
prestatzen Kukuka taldea.

Xabier Goitia kultur tekni-  
kariak aurreratu zuenez, ema-

naldi sorta bat eskainiko dute  
hainbat dantza taldek Okendo  
plazan arratsaldeko zazpieta-  
tik aurrera, esan bezala, apiri-  
laren 29an, ostiralez.

### Zinema eta antzerkia

Haur eta helduentzako peli-  
kula eta antzerki emanaldiak  
ere sartu ditu Kultur batzor-  
deak apirileko agendan.

Helduen igandeko ema-  
naldian 'Deadpool' proiektu-

tuko dute, 19:30ean. Horren  
aurretik, gaztetxoek 'Menudos  
heroes' luzemetraiaz gozatu  
ahalko dute, 17:00etan.

Hurrengo asteetan 'Spot-  
light', 'Cien años de perdón'  
edota 'Kung Fu Panda' filmak  
emango dituzte, besteak beste.

Antzerkiari dagokionean,  
Malas Compañías taldeak  
'Letter; eskutiz baten bidaia'  
eskainiko du, 30ean, kultur  
etxean, 17:00etatik aurrera.



Haurretako asko hazi eta Udako Txoko begirale lanetan daude egun.



2008. urtean, Gazte Klubeko lagunek 'Mamu herri' filma grabatu zuten eta filmaren emanaldiaren aurkezpena ere egin zuten.



Tailerrak, jokoak, antzerkiak... denetarik egiten da Amaraun Ludotekan.

## 'Euskaraz jolastu eta herria piztu!' erakusketa ikusgai gaurtik aurrera

Takun Kultur elkarteko  
Aisia sailak antolatutako  
'Euskaraz jolastu eta herria  
piztu!' erakusketa gaur ireki-  
ko ditu ateak, Antonio Merce-  
ro erakusketa gelan.

Elkarteak aisia arloan 25  
urte hauetan Lasarte-Orian  
egindako lanaren garapena  
aurkeztuko du irudien bitar-  
tez. Izan ere, programa ezber-  
dinetako argazki erakusleak  
izango baitira bertan.

### Gonbita

Elkarteak Udako Txokoetan,  
Amaraun ludotekan, Gazte  
Klubean, gurasoekin eginda-  
ko ikastaroetan, udaleku itxie-  
tan edo aisiako beste edozein  
ekimenetan aritutako gazte,  
haur, zein helduek gonbita  
egiten die erakusketara hur-  
biltzeko. Izan ere, askok haur  
izatek heldu izaterako bila-  
kaera ikusi ahalko baitute iru-  
dietan.

Aipatu legez, Antonio  
Mercero erakusketa gelan  
egongo dira argazkiak ikusgai  
gaurtik. Horiez gozatzeko  
azken eguna apirilaren 24a  
izango da. Ordutegiari dago-  
kionez, astelehenean ostirale-  
ra 17:00etatik 20:00ak bitarte  
egongo da irekia.

Urte hauetako guztietako  
argazkiak ikustez gain, sor-  
presak ere egongo direla  
aurreratu dute antolatzaileek.

# Euskaraz gozatu Udako Txokoetan

Begiraleen izena ematea Udako Txokoetakoarekin batera irekitzen da bihar

Nahiz eta oraindik ikasturteko azken txanpa geratu, herriko gaztetxo eta haurrek udako oporrak gogoan dituzte. Asko gurasoekin joango dira oporretara; beste hainbat herrian geratuko dira eta Udako Txokoetan parte hartuko dute. Ekin-tzaz betetako egitaraua izango dute, haur, gazte eta begiraleen gozamenerako.

## TXINTXARRI

Tailerrak, jokoak, irteerak, kirola... Lasarte-Orian erroldatutako haurrek, Ttakuneko bazkideen seme-alabek edo Ttakuneko programetan dabiltzan haurrek udan euskaraz eta lagun artean milaka ekintzez gozatzeko aukera izango dute Udako Txokoetan.

Ttakun kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako udako eskaintza aurkeztu du.

### Hiru egitarau

Udako Txokoetako antolatzaileek azaldu digutenez, adinaren araberrako programak antolatu dira eta urtero bezala jaialdi bereziak. Hala nola, San Ferminak edo Santa Ana ospatuko dituztela aurreratu dute, baita Udako Txokoetako amaiera emateko azken festa berezia izango dela ere.

Programei esker, uztailearen 4tik 29ra, 25 izan ezik jaiak, ekintzaz betetako egitaraua izango dute etxeko txiki eta gazteek.

HH3 eta HH4 mailako txikiak Landaberri Garaikoe-txean izango dira.

Bertan jolasak eta eskulanak egingo dituzte, baita irteerak ere.

Hauen bitartez, herriko parkeak ezagutu eta Txiki Guay-n primerako goiza igaroko dute.

4 urtekoek gainera, 15:30ak arte irteera bat egingo dute eta igerilekura ere hurbilduko dira, plisti-plastauraz gozatzera.

5 eta 7 urte bitarteko haurrek ere Landaberri Garaikoe-txean izango dute egoitza.

Adin honetan, kirol ekin-tzei eta talde jolasei ematen zai garrantzia. Horregatik, jostakirola programako ekin-tzak eramango dituzte aurrera.

Horrez gain, Lasarte-Oriatik irtegera hainbat txango egitera.

Gaztekoen -8 eta 12 urte bitartekoak- egitarauan abentura izango da nagusi.

Abenturazko ekintzak, ur jolasak, tailerrak, jostakirola programa, irteerak... asper-tzeko astirik ez dute izango.

Horiek Sasoeta ikastetxean bilduko dira egunero.

### Altzo eta udaleku itxiak

Hori guztiaz gain, LH2 eta LH3koei zuzendutako irteera berezia dago.

Tolosaldeko Altzo herrian lau egun igaroko dituzte gaztetxoek uztailearen 18tik 21era eta bertan ekintza bereziak egingo dituzte.

LH3 eta LH6 arteko lagunek, berriz, Albeniz eta Donemiliagako udaleku itxiak dituzte.

LH3 eta LH4 mailakoek lagunekin Udako Txokoetan ederki gozatu ostean, uztailearen 18tik Albenizen abentura ederra biziko dute. Uztailearen 29an azken festan egoteko herrian bueltan izango dira.

Bestalde, Donemiliagan uztailearen 16ra arte egon ostean, uztailearen 18tik Udako Txokoetan parte hartzeko aukera ere izango dute LH5 eta LH6 mailakoek.



Ur jolasak eta haurren gozamenerako beste hamaika ekintza antolatuko dira Udako Txokoetan zehar.

### Abuztua eta Goiz Txoko

Baina uztailean ez da guztia amaitzen; abuztuaren ere lagunekin jolasten jarraitu eta Udako Txokoetako ekintzez gozatzeko aukera dute gaztetxoek. Txanda horretan, gutxiago direnez, guztiak Landaberri Garaikoe-txean bil-tzen dira.

Udako Txokoetako ekin-tzak goizeko 10:00etatik 13:00etara gauzatzen dira, ekintza puntualak edo irteera batzuk izan ezik.

Lana dela eta, haurrak 10:00ak baino lehen eraman behar dituzten gurasoek Goiz Txoko zerbitzua dute eskura. Horri esker, 9:00etatik aurrera laguntxoekin batera egoteko aukera edukiko dute gaztetxoek.

### Izena ematea

Udako Txokoetan izena emateko matrikula orria sinatua eta ordainagiria aurkeztu behar dira Ttakun kultur elkartearen.

Ordainketa Ttakuneko bulegoan bertan kreditu txartelaz egin daiteke edo diru-sarreraz egin daiteke Kutxabaneko

2095-5048-18-1061552351 kontuan. Horretan haurren izena jarri behar da kontzeptuan.

Ttakuneko bazkideek beharpenak izango dituzte prezioetan.

HH5 eta LH6 mailetako kiroldegiko abonatuak ere beste prezio bat ordainduko dute. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, kiroldegiko abonatu bezala matrikula egiteko garaian bigarren sei hilabeteko bazkide direnak bakarrik onartuko dira.

Udako Txoko zein programa ezberdinetako bilerak ekainaren 9 eta 10ean izango dira.

Izena ematea bihar goizean hasi eta maiatzaren 5ean amaituko da.

### Erreserba

Deialdi honetan sartzen ez diren gainontzeko haurrek eta 2013. urtean jaiotakoek erreserba taldea osatuko dute. Antolatzaileek aipatu digutenez, epea bukatuta plazarik geratuz gero, Udako Txokoetan parte hartzeko aukera izango lukete.

### Begirale lana

Baina hau guztia aurrera eramateko, begiraleak beharrezkoak dira.

Hori dela eta, Ttakun kultur elkarteak uda honetako begirale lan poltsa irekiko du bihar.

Uztaila edo abuztuaren zehar Udako Txokoetan herriko gaztetxoekin primeran pasa edo Albeniz eta Donemiliagan udaleku itxietan milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek orain dute izena emateko aukera.

Begirale ugari behar dira batez ere Udako Txokoetarako. Hauek bi baldintza bete behar dituzte: 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila altua izatea. Honetaz gain, begirale titulazioa eta esperientzia ere kontuan izango dira.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun Kultur elkartera hurbildu edo [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbidera mezu bat bidali besterik ez du.

Begiraleen lan poltsan izena emateko azken eguna apirilaren 25a izango da.



Udako Txokoetako haurrek irteerak ere egingo dituzte. Tailerrak, jokoak, ibilaldiak... denetarik izaten da.



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

## DARDOAK.-

# Meritxell Izagirre, Europako laugarren

Ampuria Bravan aritu zen herritarra, bakarka, kriket modalitatean; "pozik" dago egindakoarekin

**Duela lauzpabost urte murgildu zen Meritxell Izagirre dardoaren munduan, "lagun bati esker". Izugarria izan da bilakaera ordutik: Europako laugarren geratu zen martxoaren 18tik 20ra Ampuria Bravan (Herralde Katalanak) jokatuak txapelketan. Bakarka aritu zen, kriket modalitatean. Finalaren atarian geratu bazen ere, "oso pozik" dago herritarra bertan egindakoarekin.**

ÍÑIGO GONZALEZ

**T**xapelketan ongi pasatzen nindoan: gutxitan ikusten dudana jendearekin elkartu eta gure zaletasunaz [dardoez] gozatzeko", dio Izagirrek. Gozatu bakarrik ez, Europako txapelketako laugarren postua ere eskuratu zuen herritarra Ampuria Bravan. "Maila oso altua zegoen Europakoan, eta, finaletik at geratu arren, laugarren postu hori oso garrantzitsua izan da niretzat", aipatzen du.

Urtean zehar herrian aritzen da Izagirre, dardoetan: "Liga modalitate ugari ditugu: banakakoa, binakakoa, taldekakoa... Egia esan, denetan eman ohi dugu izena; afizio handia dugu". Taldekide bat txapeldun izan zen Guadalaran (Madril) pasa den urteko abenduan, eta horri esker joan

ziren Europako txapelketara, martxoaren 18tik 20ra bitarte.

Bakarkako modalitatean aritu zen Izagirre, kriketean. Liga batean lehiatu da denboraldian zehar. Jardunaldiak jokatzen joan ahala, jokalaririk bakoitzak batez besteko puntuazio bat eduki ohi du: hori hartzen da aintzat Europako rako plazak erabakitzerakoan.

## Gipuzkoakoa palmaresean

Meritxell Izagirreraren taldeak Gipuzkoako txapelketa poltsikoratu zuen duela bi urte. Sari gisara, Santiago de Compostelara joan ziren bidaietan.

Beste zenbait garaipen ere erdietsi ditu. Esaterako, joan den hilabetean irabazi zuen, bakarkako ligan. Joko-modalitate desberdinetan aritzen dira horretan.

Arestian esan bezala, ahal duen liga eta joko-mota guz-



Meritxell Izagirre, laugarren postua eskuratzeagatik diploma eskuetan, txapelketa amaitu eta gero.

M. IZAGIRRE

tietan ematen du izena herritarra. Momentu honetan, mutilarekin batera, bikotekako liga batean ari da jokatzen. Irabaziz gero, uztaietan Aginagan jokatuko den txapelketan hartuko dute parte.

Bakarkako batean ere ari da; desberdina da joko-sistema: "Birtuala bilakatzen da bakarkako liga; hots, jokalaririk bakoitzak bospasei egunetan jokatzen ditu partidak, ahal

duenean, eta aurkariak ere bai. Ordutegi eta egun zehatzik ez dago horietan aritzeko", zehazten du. Sei egun horiek igarotzen direnean, batez besteko puntuazioa hartzen da aintzat; irabazleak puntuak pilatzen ditu. "Sistema horrekin, lana edo beste konpromiso batzuk direla-eta ordutegi arazoak dituen jendearenean ematen zaio aukera dardoetan jokatzeke".

## Astebururo dardo-jokoan

Duela lauzpabost urte hasi zen dardoetan jokatzen Meritxell Izagirre. Ordutik, ez da geratu: "Astebururo jokatzen ditugu partidak, Lasarte-Orian edota Gipuzkoa osoan".

"Mundu guztia animatzen dut kirol hau probatzera: jende asko ezagutu daiteke, eta dardoak gustatuz gero, oso ongi pasa dezakezu jokatu bitartean", aipatzen du herritarra.

## TXIRRINDULARITZA.-

# Dena prest iganderako

**L**asarte-Oriako BTT travesiaren VI. edizioa jokatuko da igande honetan. Prest du dena probaren antolatzaile Saiatuz txirrindularitza taldeak.

Parte hartzaileek bi ibilbide edukiko dituzte aukeran. Batetik, laburra: 28 kilometrokoa izango da eta 600 metroko desnibel positibo metatua edukiko du. Bestetik, luzea: 39 kilometro burutu beharko dira, 1.000 metroko desnibel positibo metatuarekin. Hamazazpigarren kilometroan jaki zein edariekin hornidura-postu bat jarriko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Okendo plazatik aterako dira txirrindulariak, igandean, 9:30ean. Neutralizatua izango dira aurreneko sei kilometroak, Txokoalderaino. Andatza mendian barrena egingo dituzte kilometro gehienak. Gune teknikoak egongo dira ibilbidean zehar: bi pinu arteko eta zirkuitu zirkular bat, bi



Okendo plazatik ekingo diote probari txirrindulariek, 9:30ean.

kilometrokoa, Azkar garraioen egoitza parean. Antolatzaileek zehaztu dutenez, bidea errazagoa izan dadin palet batzuk jarri dituzte zenbait gunetan.

Okendon helmugaratu eta gero, indarrak berriro ahaliko dituzte parte hartzaileek bertan: patata-tortila, txistorra, freskagarriak, garagardoa... Ez da ezer faltako. Kiroldegiko dutxak ere erabili ahaliko dira; debaldeko masajeak ere jaso

ahalko dituzte txirrindulariek. Bizikletak garbitzeko mangelak ere jarriko dituzte antolatzaileek. Proban izena eman daiteke, *kirolprobak.com* atarian, 10 euro -ibilbide motza- edo 12ren -luzeatruke. Igandean ere posible izango da, 15 edo 17 euro ordainduta, proba hasi aurretik. Dorsalak bezperan jaso beharko dira, Michelinen, 18:00etatik 20:30era.

## ATLETISMOA.-

## Brontzezko domina Eneritz Bustorentzat, junior mailako pista estaliko Espainiako txapelketan

LOKEko hainbat atletak hartu zuten parte junior mailako Espainiako pista estaliko txapelketan, martxoaren 18 eta 19an. Eneritz Bustok hirugarren postua eta brontzezko domina lortu zituen, 60 metro hesietan. Maider Rekondo seigarren izan zen pisu jaurtiketan, eta Ane Galardik ezin izan zuen 60 metroetako finalerdietara sailkatu. Aire libreko sasoiak prestatzen hasiak dira.

"Oso ona izan da aurtengo pista estaliko denboraldia; Eneritzen dominak biribildu egin du sasoiak". Hitz horiekin baloratzen du Oscar Goikoetxea prestatzaileak sasoiaren zati hori. Balentria handia egin zuen Eneritz Bustok: aurten aritu da lehenengo junior mailan, eta Espainiako hirugarrena izan da pista estalian, 60 metro hesietan, kronometroa 8.77 segundotan geratuta. Hamaika ehunetokan ondu zuen atleta gazteak Sabadellera eraman zuen marka. "Oso pozik nago egindakoarekin. Nire helburua finalean sartzea zen, eta jada bertan egonda, ahalik eta gehien gozatea", adierazi du Bustok.



E. BUSTO

# Agenda

Larunbata 9, 20:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxea



## Portuko abenturak

Pablo Sorozabal musikariak konposatutako 'La tabernera del puerto' zarzuelaz gozatu ahalko da. Espainiako Iparraldeko kostako herri batean dago kokatua istorioa. Marola tabernariak portuko gizon guztiak zoratuak ditu. Herritarrek Juan de Eguia bidelapurrraren emaztea dela uste dute, baina bere bihotza Leandro arrantzalearena da. Amodiozko istorio honen nondik norakoak ezagutu ahalko dituzte Manuel Lekuonara hurbiltzen direnek. Sarrerak Interneten edo txarteldegian, 12 euro.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Apirilaren 24ra arte

Takun KEko aisia eta gaztea sailek 25 urte hauetan antolatutako hainbat ekintza, hala nola, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira Antonio Mercero aretoan. Asteleheneetik ostiralera egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara, gaurtik hasita.

## Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 7, 20:00etan

'Eunate XXI' izeneko kontzertua eskainiko dute Josetxo Goia-Arribere eta Ana Belen Garcia musikariek. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 8, 20:00etan

Serafin Zubiri artista nafarrak 'X una causa justa' lana oholtzaratuko du. Sarrera, 5,50 euro.

## Lasarte-Oria

### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 10, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Mendos heroes' luzemetraia ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 10, 19:30ean

Helduentzako zinema atalean, 'Deadpool' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 15, 22:00etan

Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean 'Spotlight' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 17, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Oker' filma ikusgai; euskaraz proiektatuko dute. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 17, 19:30ean

Helduentzako zinema atalean, 'Spotlight' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

### Pailazoak

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 16, 16:30ean eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek haien abentura berria eskainiko dute, 'Amalur'. Sarrera, 7 euro. Jalgi

Kafe Antzokian eta Artizar tabernan salgai. Irakurle Txokoko lagunek antolatutako ekintza.



### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Loreto Otaegiren margo eta egurrezko lanak ikusgai.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 10, 20:00etan

Amaren Alabak talde zuberotarrak kontzertua eskainiko du. Sarrera doan.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 22, 19:30ean

Danak Kide elkarteak antolatutako Musika topaketen barruan, Aqua Lauda ahots zurien abesbatzaren kontzertua.

## Hemeroteka


### Duela 1209 ale



TXINTXARRI aldizkariak Semblante Andaluz elkartearen lokal berriaren inaugurazioaren berri eman zuen 1998ko apirilaren 8an. Blas de Lezo utzitako lokal batean urte askotan egon ostean, elkarteak berea zen lokala ireki zuen. Zazpi hilabetetan bazkideen auzolanari esker, lokala prestatu zuen elkarteak. Orduan lehendakari zen Jose Acostaren hitzetan, "guztira urte eta erdi pasa dugu bueltaka. Intsonorizazioa eta beste zenbait alderdi tekniko profesionalen bidez egin badugu ere, beste guztiak bazkideon artean egin dugu". Honetaz gain, urte batzuk lehenago lokala aurkitzeko arazoak izan zituztela aipatzen du. Era berean, elkarteak ekintzak egiten jarraituko zuela azpimarratzen zuen. Gainera, lokalean oholza txiki bat dagoela ere nabarmentzen zen: "Oholtzak izaera simbolikoa du. Neurriak besterik ikustea ez dago, ekitaldi asko ezin dela egin pentsatzeko. Eginez gero, pertsona bakarrek saioak izan beharko dute..."

## Sarean

### Hitzargiak, hizkuntzak elkar elikatzen



'Hitzargiak, Elkar argitzen duten hizkuntzak' Soziolinguistika Klusterrak eta Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak martxan jarritako ekimena da. Europako hizkuntzak biziberritzeko jardunbide egokiak identifikatzea eta Europako hizkuntza-komunitateei elkar elikatzeak aukera ematea ditu helburu proiektu honek.

Honen barruan, hizkuntzak biziberritzeko jardunbide eredugarritzat jotako ekimenak bilduko dituen webgunea egin da, [www.hitzargiak.eu](http://www.hitzargiak.eu) orrialdea. Europako mapa eta Europako hizkuntzen mapa batek jardunbide horiek argi gisa erakutsiko ditu.

Ekimen horien atzean dauden erakundeak harremanetan jartzea denez proiektuaren helburu nagusia, webgunean ere adieraziko dira sortuko diren harreman edo elkarriketa horiek, argien artean zubiak eraikiz.

Hiriburutzaren ondoren ere bizirik jarraitu ahal izango duen egitimoa denez, harreman-sare iraunkor bat sortu ahalko da honetan. Hala, Europako hizkuntzen mapan, argiak pizten eta argien artean zubiak eraikitzen jarraitu ahal izango da, hizkuntza-aniztasunaren mesedetan.

Aitor Zarzuelo Zine zuzendaria

# “Ausartak diren ikus-entzunekoak ditut gustuko”

Zuzendari lasarteoriatarak Gazte 22 saria irabazi zuen Lekeitioko zine bileran

Ohiko gaietatik aldentzen diren filmak eta ikus-entzunekoak ditu gogoko Aitor Zarzuelo zuzendari gazte lasarteoriatarak. Bere gustukoena artean aipatu ditu Lars von Trier, Gaspar Noe edota Andrei Tarkovsky. Euskal Zine Bilkuran arrakastatsua izan zen 'Maitaleak' film laburra, eta zilarrezko antzarrarekin saritu zuten. Hainbat musika talderentzako bideoklipak egiten dihardu orain Mondragon Unibertsitateko ikus-entzuneko komunikazioko ikasle ohiak. Bere facebook orrialdean eta webgunean ikus daitezke horiek. Oskar Santos zuzendari bizkaitarrarekin ere ibili da lanean, uztailen estreinatuko duen 'Zipi y Zape y La Isla del Capitán' filmeko kamara laguntzailea izan baita.

MARTIN VICIOSO

Aitor Zarzuelo zine zuzendari gaztearen lehenengo film laburra, 'Maitaleak' izenekoak, Lekeitioko Euskal Zine Bilerako Gazte 22 saria irabazi zuen. Bikote harreman ez konbentzional bat irudikatu du Zarzuelok. Bere bikotekidea beste pertsona batzuekin sexu harremanak edukitzen ikustea gustatzen zaio laburreko protagonistari. Gertuko norbait tartean sartzean, ordea, erlazioa aldrebestuko da.

Proposamen ausarta egin du Zarzuelok. Aitortu duenez, bai irudian baita narratibaren ere ezberdinak diren lanak egitea gustuko du. Horretaz eta gehiagoz egin dugu berba.

## Nolatan aurkeztu zenuen “Maitaleak” Lekeitioko zine bileran?

Laburra egin ostean, mugitu beharra zegoen. Euskarazko lehiaketa izanda, aukera polita zela pentsatu genuen. Hala ere, beste leku askotan ere saiatu gara filma sartzeko. Besteak beste, Santanderren eta Eibarko “Asier Errasti” film laburren jaialdian.

## Konfiantza emango zizun saria irabazteak.

Konfiantza baino gehiago, bultzadaxoa eman ninduela esango nuke. Dena den, oso argi daukat honekin jarraitu nahi dudala. Egia da saria jasotzeak zerbait ematen dizula. Harrera ere ona izan du eta ahalik eta gehien zabaltzeko aukera eman dit, eta horrek sortu dit poztasuna, batez ere.

## Bikote ez konbentzionalen gaia jorratu duzu. Zer dela eta?

Ez konbentzionalak diren gauzetan interesa dut, egia esan. Unibertsitatean irakaskai baterako gidoia idatzi behar genuen, eta ez nuen nahi ohiko lan batean soilik geratzea. Interesgarria den zerbait egiteko asmoa nuen ikasgelatik haratago.

Euskal laburgintzan eta zineman jorratu ez den gaia izanik, interesgarria suertatu zitzaidan. Gizartean ez ditugu jorratzen, eta zinemagintzan are gutxiago. Egiten ditudan lanetan gustuko dut arriskatzea, gauza ezberdinak bilatzea eta arauetatik haratagoko gaiak jorratzea.

Aurretik egin dituzten isto-

rioren edota landutako gaien moldaketak egitea ez dut gustuko.

## Gutxi arriskatzen da euskal ekoizpenetan?

Ez dut uste gutxi arriskatzen denik, baina egia da gai batzuk ez direla landu. Halere, gero eta lan ez konbentzional gehiago ikus ditzakegu.

## Nola ikusi duzu zure burua gidoilari/zuzendari/editore lanetan?

Azken batean fase ezberdinetan egiten diren lanak dira. Halere, egia da lan karga handia dela, eta proiektuko alor askotan egoteak perspektiba galtzera eraman zaitzakeela.

Nabarmenduko nuke denboran luze egiten dela, eta horregatik ez ditudala faseak nahasten. Hori bai, hainbeste ordu proiektu berean lanean eman ondoren, zaila izaten da objektibitatez begiratzea behin bukatzean.

## Ze baliabide tekniko erabili zenuen grabaketan?

Grabaketa egin nuenean ez neukan ekipo propiorik. Unibertsitateko materiala erabili genuen baita argazki zuzendariaren kamara ere.

## Musika taldeekin ere egin duzu lan, bideoklipak eta zuzeneko grabaketak egiten.

Oso musika zalea naiz eta harreman estua dut harekin eta taldeekin. Halaber, bideoklipak erakartzen naute.

Momentu honetan musika bideotan lanean murgilduta nago gehienbat. Izan ere, film laburra niregandik atera behar



Musika bideoak egin ditu azkenaldian Zarzuelok.

den zerbait dela uste dut, ez baitut gogoia beste baten lana egokitzeke. Ateratzen zaidanean, aterako da, baina artean ez dut presarik izango.

## Zergatik musika bideoak?

Bideoklipak beste joko batean aritzeko aukera ematen didate, beste modu batean lanean aritzeko eta esperimentatzeko. Meltdown taldearentzat bideoklip berri bat estreinatu berri dut.

Askatasun handia ematen didate taldeek eta zentzu horretan nahi dudana egin dezaket. Nire estiloa aurkitzen eta definitzen laguntzen didate, eta beraz, momentu honetan egiten ditudan lanak bide horretan kokatu nahiko nituzke.

## YouTube bezalako plataformek eta musika kontsumitzeko modu modernoek bideoklipari bultzada eman diote.

Bai. Bideoklipak zabaltzeko garaian plus bat ematen diote halako plataformek. Halaber, gaur egun ditugun baliabideek ahalbidetzen dute talde gehiagok ikus-entzunekoak atera ahal izatea. Aurrekontu xumearekin oso gauza duinak egin daitezke gaur egun. Ideia da garrantzitsua.

Azken batean, asko kontsumitzen dugu bisualki gaur egun.

## Euskal zinematik arrakasta izan du azken urteetan. Zer nolako etorkizuna ikusten diozu?

Ez dut uste arrakasta puntuala izan denik. Bide onean egin-dako filmak iruditzen zaizkit 'Amama' edo 'Loreak'. Etorkizuneko gehiago etorriko direla uste dut. Agian ez dute urteroko arrakasta izango bi horiek bezala, baina pixkanaka maila handitzen joango garelako uste dut, gauza berriak saiatzen eta formatu berriekin lan egiten. Beste herri batzuetan egiten diren filmak parez pare ikus ditzakegu.

## Nola osatu duzu lanerako harreman sarea?

Zinemagintzako jendea ezagutzen joan naiz eta, ondorioz, harreman sarea osatzen. Plautoetan aktore eta langile asko topatu ditut. Rodajetan ezagutu dudan jendearekin egin dut lan gehienbat orain arte.

## Bereziki gustuko duzun zuzendari edo filmen bat?

Esaterako, Francis Ford Coppolaren "Apocalypse Now" edo Lars Von Trier-en "Antichrist". Andrei Tarkovsky eta Gaspar Noe ere gustuko ditut. Ausartak eta ezberdinak diren filmak nahiago ditut. Narratiboki eta bisualki indartsuak izateaz gain, gai berriak lantzen dituztenak.



Aitor Zarzuelo, "Maitaleak" film laburraren grabaketan parte hartu zuten bi aktoreekin.